

Donostia, 2020ko irailaren 25a

### UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikuluek ematen duten babes aintzakotzat hartu eta arau proposamen hau dakar, **Establezimenduak eta lokalak ireki eta kontrolatzeko zerbitzuak emateko tasa** aldatzeko, osoko bilkuran aztertu dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostia oso hiri erakargarria da turismoaren aldetik, eta, horren ondorioz, etxebizitza asko jarri da errentan turistentzat. Jarduera horrek tasa bat du jarduera ireki eta kontrolatzeko zerbitzuagatik. Tasa hori, ordea, ez da nahikoa garatu behar duen jarduera ekonomikoaren eta Udalak jarduera hori zaintzeko eta kontrolatzeko erabiliko dituen baliabideen aldean. Hori dela eta, gelak eta etxebizitzak turismorako alokatzearekin lotutako tasak % 50 handitzea proposatzen dugu.

Horiek horrela, hauxe proposatzen diogu Donostiako Udalbatzari:

Establezimenduetan eta lokaletan jarduerak irekitzeko eta kontrolatzeko zerbitzuen tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren eranskina aldatu eta honela jartzea haren ZERGA OINARRIA:

Aurrez lizentziarik izan beharrik ez duten jarduerak:

150 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitarteko establezimenduak	250 €
500 m <sup>2</sup> baino gehiagoko establezimenduak	2.250,13 €
Ohiko etxebizitzetan turismo erabileretarako gelak alokatzea.	82,50 €

Etxebizitza turismorako erabiltzeko alokatzea:	
150 m <sup>2</sup> bitarteko establezimenduak	247,50 €
150 m <sup>2</sup> eta 350 m <sup>2</sup> erabilgarri bitarteko establezimenduak	412,50 €

Sinatua: Aitzole Araneta,

*Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea*